

BAURYNA SALU

EQZEtik datorren euskal uzta

ANDONI IMAZ

Denborazko esperientzia bat da Elías Querejeta Zine Eskola, zinema bera bezain bizia, mudakorra eta atze-manézina, askotan. Han, elkarrekin nahastuta bizi dira asmo zirriboratuak, filmatze zatikatuak, muntaketa zalantzakorrak eta askotariko berri-dazketak. Horregatik, egiteko bidean dauden filmen argazki bat ateraz gero, ezinbestean izango da lausoa eta osatugabea. Eta, hala ere, egiteko bidean dauden filmen argazki bat da hau: Euskal Herriko ikasle ohiak sortzen ari diren lanen errepaso bat. Merrezi baitu jardun agorrekin horri begiratzea. Mamituen dauden proiektuak Marina Palacioren *Y así serán las cosas*, Julen Etxebarriaren *Terra dei cicli* eta Iker Reyesen *Gaubela* dira.

Marina Palacio lehen promozioiko ikaslea izan zen, eta bere aurreneko lan luzea filmatzen bukatu berri du. Ez edozein modutan: sei urte eman ditu *Y así serán las cosas* pelikulan lanean, sei abuztu, haur berberekin filmatzen Palentziako herri batean. Filmak, udaz uda, hango ume baten haurtzaroa kontatzen du, jendez — eta, beraz, haurrez — husten ari den inguru batean. Gidoi “aldakor” batekin aritu da: “Egitura sendoa izan du, baina irekia. Urtero berridatzi dugu, haurrak eta pertsonaiak hobeto eza-gutu ahala, haiengana egokitzeko”.

Ya no duermo laburra (2020) Zabaltegi-Tabakalera sailean estreinatu eta gutxira murgildu zen Palacio proiektu berrian, lantalde txiki batekin, hasieran, eta modu profesional-ean, azkenean, Gariza Films ekoiztetxearen bultzadari esker. “Detalleak aldatu dira, baina filmaren esentzia duela sei urte irudikatzen nuen hori bera da, pozik gaude horrekin”. Datorren urtean dira estreinatzeokoak, Elastica Filmsek banatuta.



Y así serán las cosas.

Zenbait udatan, Sizilian izan da Julen Etxebarria, Luchino Viscontik *La terra trema* (1948) filmatu zuen lekuan. Gaur egun, Aci Trezza helmuga turistiko bat da, Viscontiren filmeko arrantzale herria baino gehiago. Behinola aktore aritutako arrantzaleen ondorengoek turistak gidatzen dituzte beren txalupetan ziklopeen uharte ikusgarrietara. Kondairak dioenez, *Odisea*-n Polifemok Ulisesi botatako arroakak dira irla horiek. “Paisaiaren dimentsio mitikoaren, filmaren memoriaren eta turismoak markatutako errealitatearen elkarbizitza horrek piztu zidan interesa esploratzeko nola aritzen diren elkarrizketan iragana eta oraina leku berean”, azaldu du.

Hala, *Terra dei cicli* laburra uda bat kontatuko du, hiru zatitan: aurretiko prestaketak, arrokatarako itsas bidaiak eta ondorengo eguneroko bizitza. Etxebarria muntatzen ari da orain, datorren urtean bukatzeko asmoz. Hark Nest sailean parte hartu zuen bere aurreko lanarekin: *El tercer paisaje* (2024).



Terra dei cicli.

Eskolara proiektu argi batekin sartu zen Iker Reyes, eta film luze batekin atera. Gidoia fintzeko eta filmatzeko baliatu zuen ikasturtea: “Nire erara

lan egin nahi nuen, nire denboran, laguntzen zain egon gabe”. Iazko udan filmatu zuten *Gaubela*. Espainiako gerran girotu du istorioa, 1937ko

maiatzean, Askuren mendiaren inguruan; gudu asko izan ziren han, harik eta, ofentsiba frankista batean, Alemaniako eta Italiako aire armadek bonbardatu zuten arte. Testuinguru horretan, Reyesek hiru ahizpa irudikatu zituen baserri batean: “Imajinatu dezakegu zer gertatzen den gudu zelaian, baina zer gertatzen da ezer egin ezin duten pertsonekin? Filmak erakusten du etxean sartuta bizi direnek zer harreman duten kanpoko biolentziarekin”.

16 mm-tan filmatu zuten pelikula, hiru aktoreekin, bi lekutan — etxean eta mendian — eta elkarrizketa gutxiarekin. Gaur egun, ordu eta erditik gorako muntaketa bat du esku artean, eta soinu lantzea du hurrengo zeregina.

Beste zenbait proiektu ere mar-txan daude. Daniel Alegretrek, *High* film luzea garatzeko prozesuan — Bilboko High gay klubean girotutako fikzioa —, *High River* laburra egin du: Cannesko jaialdiko merkatuan izan da, ICAAK sustatuta, eta Kimuak programarako hautatu dute. Bere aldetik, Laura Ibañezek *Una vez fui piedra* lan esperimental filmatuko du udazkenean, Atekaleun ekoizpen etxearen laguntzarekin.

Azken urteetan Ikusmira Berriak programatik igaro eta gero, Mikele Landa eta Ekain Albite *Senda* eta *Akira* film luzeak garatzen ari dira, hurrenez hurren. Finantzaketa lortzeko eta filmaketak prestatzeko lanean dabil-tza. Migrazio prozesu batek elkartutako hiru lagunek eta beren mundu ikuske-rek, talka egin ordez, bat egiten dute *Senda*-n. *Akira*-k, berriz, Lemoizko zentral nuklearreko hondakinen eta Georgiaren arteko bidaiak gautar bat proposatzen du. Bestalde, Saioa Miguel *Leize* filma idazten ari da, Noka Sorkuntza, D'A Lab eta Apika Lab programetan parte hartu berri-tan.

DONOSTIA KULTURA ETA ZINEMA
DONOSTIA KULTURA Y EL CINE



DONOSTIA KULTURA
Bazkideak - Socias/os

%10EKO DESKONTUA
Zinemaldiko sarreretan!
¡10% DE DESCUENTO
en las entradas del Festival!

Deskontu hau Zinemaldi Plazan (Kursaal) eta Zinemaldiko lehiatila guztietan egingo da. Este descuento es válido en el Zinemaldi Plaza (Kursaal) y en todas las taquillas del Festival.

